

BERTÈ, MARCO (2014)

*Reflexionar: Un modo mejor de pensar. Madril: Narcea.*

Hausnartzea edo gogoeta egitea pentsatze hutsetik harago doan kognizio jarduera da, gauza bat, egoera bat, kontzeptu bat, esperientzia bat, ikusi edo egindako zerbait arreta handiz aztertzea baitakar berekin. Eta horretaz ari da irakasleei eta pedagogoei Bertèk zuzendu dien liburu hau, hausnartzea buru jardueretariko bat baita. *Narcea* argitaletxearen *Didáctica de las operaciones mentales* bilduman txertatzen da eskuliburua hau, eta egitasmo horretan hartzen du zentzu osoa, bertan, hausnartzeaz gain, ebaluatzea, epaitzea, behatzea sortzea edo alderatzea zer diren eta eskoletan nola landu daitezkeen jorratzen baitu.

Hausnartzea norberaren zeregina da, norberaren denbora, espazioa eta gogoia hartzen dituen. Hausnartzea itzulera bat da, emandako urratsez itzultzea edo atzera egitea. Zertarako, ordea? Hausnartzea kontzienteki egiten den jarduera bat da hezteko, ikasteko eta aurrerantz proiektatzeko egitasmoak eta zereginak. Zertaz hausnartu? Elkarri lotutako hiru modutan: hausnarketaren bidez bizi dugun mundua islatzen dugu, munduaren islapen horretaz gogoeta egien dugu eta, azkenik, mundu horren partaideak garen aldetik geure burua ere hausnartzen dugu. Nola hausnartu? Era askotan: «gaiari» zuzenean erasoz beste zientzietako inoren ekarpenak kontuan harturik (filosofia, gizarte-zientziak, teknologia...) edo gertakariaren atalak deskribatuz eta aztertuz edo gertakaria edo esperientzia beste batzuekin alderatuz. Horiexek dira Bertèren *Reflexionar* liburuaren ildo nagusiak.

Liburuak bi atal nagusi ditu: lehenengoan eredu teorikoak aztertzen ditu eta bigarrean, proposamen praktikoak. Eredu teorikoek arlo hauek jorratzen dituzte: hezkuntzaren bilakaera historikoa; nork bere buruaren gainean eta besteen gainean egiten duen gogoetaren egintzaren azterketa,

eskarmentua, hausnarketa eta heziketa erlazionatuz; hausnarketaren eta nahitasunaren arteko erlazioa eta, azkenik, nola, zergatik eta zertaz egiten dugun gogoeta. Gai horiek jorratzeko galdera asko egiten baditu ere, horien erantzunak baino maizago galdera horiei erantzuteko planteamenduak eta hausnarbideak proposatzen ditu, sarri askotan egindako galderei galdera gehiago erantsiz.

Arlo teoriko hau jorratzeko askotan kultura judeo-kristauari erreferentzia ugari egiten dizkio: Bibliako pasarteak edo eliza katolikoaren aitzindariak aipatzen baititu (Abraham, Santo Tomas, San Agustin). Besteetan, kultura grekolatindarra du kontuan (Aristoteles filosofoa, mitologiako Eneas); baina, batez ere mendebaldeko kulturako filosofoak erabiltzen ditu hausnarketetan: Descartes, Spinoza, Berkeley, Husserl, Hegel, Heidegger edo Ricoeur. Mendebaldeko erreferentzia kultural horiek guztiak azaletik baino azaltzen ez dituenek, liburuaren ulermena ez da erraza izaten. Horregatik irakurleak autore horien berri eduki beharko luke eta, gainera, ulermena are zailago ez izateko kristau kulturarena.

Liburuaren bigarren zatian hiru proposamen egiten ditu lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza eta batxilergoko ikasleekin gogoetaren egintza lantzeko. Proposamen horietan ere kultura klasikoaren elementuak nagusi dira, batez ere Grezia zaharrekoak: Correggioren margolanak (Diana ehiztaria, Olinpo), tragedia grekoa, Eumenides, Orestiada, pertsiarren gerrak... Agian erreferentzia horiek guztiak egilearen gogokoak izango dira, baina gaurko gazteengandik urrun samar daude. Azkenik atal bietan ikus daiteke gaiaren ariari eutsi beharrean itzulginguruka dabilela erudizio antzuan, baina horrek ez du esan nahi tarteka proposamen interesgarriak egiten ez duenik.

*Kepa Larrea Muxika*

AGÜERA, I. (2014)

*Teatrillos de bichillos y otros animalillos*. Madril: Narcea. Antzerkiaren aldeko apustua hezkuntza gaurkotzeko

Isabel Agüerak Narcea argitaletxearentzat idatzitako hamaikagarren liburua da jarraian mintzagai izango duguna: *Teatrillos de bichillos y otros animalillos* izenburua duena. 94 orrialdeko lan honek bi atal ditu: lehenik sarrera edo aurkezpen moduko bat dugu: «Levar el teatro a la escuela» izena duena, eta bigarrenik, lan honen gorputza izango dena, «Guiones para escenificar» atalean bildu dituen antzezteko 16 gidoi laburrek osatzen dutena.

Lehen atalean egungo hezkuntzari buruzko gogoeta egiten du egileak, eta ikas-irakaskuntzaren bi alderdien hutsuneak aurrez aurre jartzen ditu:

hezitzaileen (izan irakasle zein guraso) frustrazioa eta ikasleen (edo seme-alaben) gogo falta eta jarrera okerra. Agüera bere esperientziatik ari zaigu, maistra eta amama roletatik zehazki, eta bere iritzia ematen digu: eskolak eguneratu behar du, informazioaren aroan baikaude, teknologia berrien garaian, eta ikasgeletan ez da behar beste (edo behar bezala) lantzen gure garaiko ezaugarri hori. Egungo umeak ohituta daude pantailek eta internetek eskaintzen dizkien interakzio eta hartu-eman dinamikoarekin, eta ez eskolak eskatzen dien ereduarekin: monologala, idatzian oinarritutakoa, eta etxekolanak eta edukiak zutabe dituen.

Agüerak ikasleak motibatu behar direla gogorarazten digu, motibazio-rik gabe oso zaila eta neketsua delako ikasketa prozesua. Beraz, egungo hezkuntzak duen arazoari buelta emateko, eskolaren eredu «zaharkitua» gainditu ahal izateko eta heziketa parte-hartzaile eta integrala lortze aldera berak jolasa proposatzen digu, eta zehatzago balioak landuko dituen antzerkia. Helburu orokorrak irakurketa sustatzea, adin horretako beldurrak uxatzea, gorpuz adierazpena hobetzea eta buruz ikasten trebatzea dira. Horretarako antzezlan bakoitzarekin batera iradokizun didaktiko batzuk eskaintzen dizkigu gidoia (eta bertako balioak) lantzearekin batera gaiaren inguruko beste jarduerak batzuk osagarri modura emanez.

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikasleentzat baliagarriak izan daitezke lan honek dakartzan antzezlanak, baina bereziko gomendagarriak dira egilearen arabera 3 eta 5 urte arteko haurrentzat. Bertan, esan bezala, balioak lantzen dira, hala nola, elkartasuna, errespetua, berdintasuna, sormena, etika edo fedea, maitasuna, lana eta esfortzua. Bere hitzetan «aldatzeko beharraren aurreko erantzun bat» da liburu hau, «hondar ale bat» norabide horretan. Azken finean egileak dio orain beste modu batean egiten direla gauzak, ikasleak aldaketarekin ohituta daudela hezitzaileak ez bezala, eta hala ere, balioak betikoak direla nahiz eta beste izen batzuk izan.

16 antzezlan hauek idazterakoan egileak izan dituen gidalerroak hurrengoak izan dira: motibazioa piztea, ikasketa esanguratsua bideratzea, ikuspegi globalizatzailea izatea eta ikasleen indibidualtasuna kontuan hartzea. Lehen esan bezala 3, 4 eta 5 urtekoentzat idatzi ditu, eta bizitzaren garai honetan zomorroi eta animalia txikiei beldurra izaten zaie maiz, edo lilura antzeko bat. Hori horrela antzezlan hauek lagunduko diete umeei beste begirada bat izaten izaki txiki hauekiko, hurbilpenerako bidean ipiniko ditu eta. Gidoi hauetan agertuko zaizkigu txolarreak, zeta-harrak, erleak, ipurtargiak, matxinsaltoak, inurriak, marigorringoak, trikuak, armiarmak, tximeletak, dortokak, barraskiloak eta usoak, besteak beste. Baina ez dira denak animaliak izango, laranjondoa, kanpaiak, ilargia edo ume galdu bat ere topatuko ditugulako orriotan.

Liburu honetan dugu, hortaz, Isabel Agüeraren proposamena. Errimaz, abesti, errepika eta onomatopeiez, edota fabulen antzeko istorioez baliatzen da ikasleak motibatzeako antzerkiaren bidez. Berak nola egin izan duen

eta nola egitea proposatzen digu lan honekin, berarentzat garrantzitsuak diren balioak eta bere modura eginez. Irakurri ostean burura etorri zaidana galdera (eta nolabaiteko akuilu) bat izan da: eta nik, nola egingo nukeen? Espero dut zuentzat ere pizgarri izan dadila.

*Amaia Álvarez Uria*

BATLLORI, J. (2014)

*Gimnasia mental para mayores. 101 Juegos para mejorar y reforzar la memoria y la atención.* Madrid: Narcea.

Argitaratu berria den liburuan Jorge Batllorik izenburuan agindutakoa eskaintzen dio irakurleari. 129 orrialdetan zehar nagusiek eurek, nagusiekin bizi eta lan egiten dutenek joko anitz aurkituko dute buru-lana egiteko, oroimena eta arreta hobetu eta sendotzeko.

Izan ere, edozein delarik adina, gorputzak ariketa fisikoa neurrian behar duen bezala, buruak ere derrigorra du erabiltzea arin mantentzeko. Eta horretarako, buruak ere gimnastikan jardun dezan, jolas eta jokoan egiteko proposamena egiten du autoreak, jokoa beti baita erakargarri eta bizi-garri edozeinentzako.

Liburua oso praktikoa da. Erreferentzia teorikoak hasieran baino ez daude, jokoaren hobariak nabarmentzeko, alegia. Izan ere, ikerketek ondo frogatu lez, urteetan aurrera joan ahala oso gomendagarria ei da buruari lana eragitea. Hori da, hain zuzen, liburu honek bilatzen duena: ondo pasatzeaz gainera, lagun artean gozatuta, eskainitako joko desberdinen bitartez ikastea, abilezia kognitiboak indartzea, sustatzea.

Oroimenaz ere arduratzen da autorea. Gaitasun horren galera delako zahartzaroaren ezaugarrietariko bat. Eta hori ekiditeko, joko eta jolas egitea baino ez dagoela dio, edozeinek, beldur barik. Geldi izateak adimen eta oroimen galera baizik ez dakarrelako eta, erabili ezker, oroimena ere sa-soiko egongo delako.

Gomendioak ere badakartza liburuak, ezinbestekoak horrelako ariketak egiteko. Lehentasunak zehaztekotan, dibertitzea; galtzen ikastea; aldaketak ezarrita, galtzaileak denak izatea noizean behin; askatasunaz jokatzea; nahi ezean, ez parte hartzea; errespetuzko giroa nagusitzea; arauak, hasi baino lehen, ondo zehaztea; partaideen egoerara moldatzea; beharrezkoa den materiala aurrez prestatzea, eta askotarikoak izatea. Ezin ahaztu jokoez gain, jolasak ere badirela, irabazle eta galtzailerik gabe, lagun artean gozatzeko.

101 jokoak 8 multzotan antolatuta daude, lortu nahi den helburuaren arabera, nahiz eta, egileak dioen moduan, helburuok beste jokoen bidez ere lor daitezkeen. Oso egoki azalduta daude. Bakoitzari orrialde bat eman dio eta horretan, izenburupean, hiru atal desberdinu daitezke. Hasteko, jo-

koaren azalpena, jokalaria, materiala, zailtasuna eta lekua. Ondoren, garapena, zelan burutzen den. Eta azkenik, aldaerak eta oharrak.

Lehenengo multzoa kalkulu matematikorako 7 jokok osatzen dute. Bigarrena, berriz, estrategiako 13k. Hirugarrenean, 24 joko prestatu ditu zentzumen eta berehalako oroimena lantzeko. Laugarrenean, ostera, behaketa-rako 5. Bosgarreneko 12ak pazientzia eta kontzentrazioa eskuratzeko dira. Hizkuntza da seigarren multzoaren funtsa eta horretarako preparatutakoak 24 dira. Zazpigarreneko 11 jolasak epe luzeko oroimenean trebatzeko dira. Eta zortzigarrenean, zoria da ardatza, 5 izanik aukerak.

J. Batllorik aspaldi hasitako bideari jarraipena eman dio lan honetan. Autore ezaguna da joko eta jolasen munduan, denetariko eskaintza zabala egin duelako. Hala ere, lehenengo aldia da nagusiak hartzailetzat hartu dituen. Eta hori txalogarria da, zaharrak ere «lanean» jartzea. Gainera, nagusiek ez ezik, edonork erabili dezakeen liburua da, jokoan eta jolasen jarduteko adinik ez dagoelako.

*Ana Isabel Ugalde Gorostiza*

TOSOLINI, A. (2014)

*Comparar: Una nueva lectura de la realidad plural*. Madril: Narcea.

Liburu hau adimen-eragiketen didaktika gaineko bildumaren barruan sartzen da. Gogoratu beharrekoa da bildumaren asmo nagusietako bat ikaskuntza eta hori ahalbidetzeko era ezberdinak aztertzea dela. Azpimarratzekoa da ikaskuntzarako adimenak duen garrantzia eta, alde horretatik, adimen-eragiketen analisiaren garrantzia aldarrikatzen da. Bilduma honetan adimenaren eta bere eragiketen artean ezartzen den loturak bereganatzen du interesa. Ikaskuntzarako, hiru elementuk osatutako egitura bat kontuan hartu beharrekoa da: adimen-eragiketak, metodoa eta edukia.

Aurkezten dugun liburua Lucio Guastik zuzenduriko bildumaren azken bolumena da. Bertan, konparatzearen adimen eragiketa aztertzen da, horren gaineko irakurketa ezberdina eta, neurri handi batean, ezezaguna eskainiz. Hasteko, konparatzea zer den azpimarratzen da; alde horretatik, errealitatearen eta kulturaren elementu ezberdinak hierarkikoki ordenatzen eta erlazionatzen dituen eragiketa dela onartzeaz gain, errealitatearen irakurketa berriak eta anitzak sortzeko duen balioa aldarrikatzen da. Beraz, egungo kulturarteko gizartean, konparatzen ikastea herritartasun berri baterako ezinbesteko dimentsio bihurtzen da.

Liburuaren lehen zatian konparatzeak zientzia-kategoria eskuratzeko jarraitu behar izan zuen prozesuari erreparatzen zaio, gaur egun ikerketa zientifikorako metodoen oinarrian agertzen dela azalduz. Konparatzeak, egungo kulturarteko gizartean eta, ondorioz, egungo kulturarteko eskolan,

balio kognitibo eta politiko handia dauka. Beraz, ezinbestekoa da eskolan konparatzen ikastea ahalbidetu dezaketen jarduerak sistematizatzea.

Liburuaren bigarren zatiak eragiketa-ereduak aurkezten ditu, konparatzearen adimen-eragiketaren potentzialtasuna hiru arlo nagusirekin erlazionatzen: nerabe digitalen identitatearen eraikitze prozesuan mito klasikoek hartzen duten garrantzia, egungo kulturarteko ikasgeletan sinismen eta esperientzia-erlijioso aniztasunaren hezkuntza kudeaketa berritzailea, eta informaziorako eta komunikaziorako teknologien aroan geografía ulertzeko modua.

Liburuan aztertzen diren alderdien bitartez, eta bilduma gidatzen duten beste liburuen laguntzaz, ikaskuntza-sistema bat eraikitzea da helburu nagusia, irakasle lanbidean ezinbestekoa den ikaskuntza-sistema bat, hain zuzen ere.

*Igor Camino Ortiz de Barrón*